



BIKHOR 11000-H25



Produktuaren deskribapena

- Aurrez nahastutako hormigoi lehorra, zementu grisez kareharriz eta plastikotasuna, trikotasuna eta iraunkortasuna hobetzeko gehigarri kimikoz egina.
- Eskariaren arabera, zementu sulforresistentez (SR motakoa) hornitu daiteke

Erabilerak

- Igeltserotza lan orokorretarako, esposizio normaleko baldintzetan, hala nola:
 - Zolatak egitea.
 - Zimenduak.
 - Konponketa txikiak.
 - Espaloiak eta zintarriak
 - Hiri-altzarien ainguraketak

Arreta-neurriak

- Erabili beharreko produktua euskarri motarako eta egingo den lan motarako egokia dela egiazta.
- Produktua aplikatzean, giro-tenperaturak 5° C eta 35° C artekoa izan behar du.
- Ez erabili produktua aplikatu eta hurrengo 24 orduetan izozte arriskua edo izoztuta dauden gainazaletan.
- Produktua, ura bakarrik gehituta, erabiltzeko prest dago. Beste edozein gehikuntzak (kareharria, gehigarri kimikoak, etabë .) portaera eta prestazioak alda ditzake.
- Erabilitako urak sarekoa izan behar du edo indarrean dagoen araudian adierazitako baldintzak bete behar ditu, eta fitxa tekniko honetan adierazitako ur-dosifikazioa errespetatu behar da. Ur gehiegi erabiltzeak, segregazioak eta erresistentzia galtzea eragin dezake.
- Hormigoia behar bezala ontzea errazteko, isuri ondoren, lehorte goiztiarretik, haize gogorren eta eguzki bizien eraginpean egotetik babestu behar da. Gainazala ontzeko likido bat erabiltzea edo ura erabiltzea gomendatzen da (istiltzerik gabe)
- Lana egin ondoren, euritik babestu behar da.
- Segurtasunari buruzko informazioa lortzeko, kontsultatu produktuaren segurtasun-datuen fitxa

Kontsumoa

- m³ bat hormigoi freskoa lotzeko, gutxi gorabehera 2.100 kg BIKHOR behar dira.

Ezaugarri teknikoak

- Kareharriaren gehineko tamaina: 8 mm
- Freskoan itxurazko dentsitatea: 2,3±0,1 gr/zm³
- Trinkotasuna (Abrams): lehorra / plastikoa
- Konpresioarekiko erresistentzia (28 egun) .. 25 N/mm²
- Erabilera denbora: Ordu 1 ⁽¹⁾
- Suarekiko erreakzioa (96/603/CE erabakia) A1
- Muga-zergen partida: 3824.50.90.00

(1) Laborategiko baldintzetan, 20°C y %50 HR. Denbora hori, temperatura altuekin laburtu egiinte da eta tenepratura hotzekin luzatu egiten da.

Erabilera

- Produktua, 25 kg-ko zaku bakoitzeko gutxi gorabehera 1,8 ñ 2,0 litro urakin nahastu behar da eta eskuz edo mekanikoki oratu, sendotasun homogeneoa lortu arte.
- Hormigoia aplikatuko den euskarriak, hautsa, igeltsua, pintura-hondarrak, koipea eta abar-etik garbi egon behar du
- Konponketetan, komeni da konpondu beharreko eremua ahokatzera, gainazal zimurtsuak sortuz, hormigoi berriarekin tsaspena hobetzeko.
- Hormigoia behar bezala ontzea errazteko, euskarriak zertxobait busti behar dira. Hormigoi zaharreko edo antzeko euskarrien kasuan, komeni da lotura-zubi bat erabiltzea.
- Hormigoia trinkotzea komeni da akabera hobe lortzeko.
- Aplikazioaren gutxieneko lodiera 4 zm-koa da.
- Edonola ere, hormigoia erabiliko den enplegu motari dagokion indarreko araudia bete beharko da.

Hornidura

- 25 kg-ko paperezko zakuetan. Palet bakoitzean 60 zaku / palet bat 1500 kg.
- Hornidura, indarrean dauden kontratazio baldintza orokorren arabera arautuko da beti.

Biltegiatzea

- Zakueta bermatzen da produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela urtebetez, fabrikazio datatik aurrera, betiere leku estali eta lehorrean kontserbatzen bada.

Bezeroari arreta emateko zerbitzu teknikoa

- Produktuak aukeratzeari, erabiltzeari edo aplikatzeari buruz zalantzarik izanez gero, kontsultatu alde aurretik gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoarekin.
- Produktu berezi bat behar baduzu, gure bezeroaren arretarako zerbitzu teknikoak zure zehaztapenak zehazten lagunduko dizu, eta zure beharretara ondoen egokitzen dena garatuko du.

Oharrak

- Gure aplikazio-aholkularitza teknikoa, dela hitzezkoa, dela idatzizkoa, dela saiakuntzen bidezkoa, gure jakintza eta ulermen leialaren arabera egiten da, baina KONPROMISORIK GABEKO adierazletzat baino ez dira hartu behar. Obran bertan esku hartzerik ez dagoenez, informazio horiek BIKAIN inola ere arriskuan jartzen ez duten ohar orokorrak dira.
- Fitxa teknikoak ezin ditu islatu material baten erabileran esku hartzen duten aplikazio eta faktore guztiak. Horrela, fitxa honetan deskribatzen ez diren kokapenen aurrean, gure zerbitzu teknikoarekin kontsultatzea edo aurretiko frogatik egitea gomendatzen dugu, egokia den egiaztatzearako.
- Erabiltzeko moduaren jarraibideak gure saiakuntzen eta ezagutzen arabera egiten dira, eta kontsumitzailea ez dute produktuen azterketatik edo egiaztapenetik askatzen, behar bezala erabiltzeko. Beraz, produktua erabili aurretik, erabili behar duenak zehaztu beharko du ea aurrerikositako erabilerarako egokia den ala ez, produktua erabiltzeak sor dezakeen erantzunkizuna bere gain hartzen baitu. BIKAIN-en erantzunkizuna erabiltzeko salgaiaren baliara mugatuko da.
- BIKAIN enpresak, kalitate-sistemetan UNE EN-ISO 9001 Arauaren eskakizunen arabera erregistratutako enpresak, bere produktuak kalitate-laborategiak kontrolatu dituela eta fitxa teknikoetan deskribatutako ezaugarriekin bat datozela bermatzen du.

2025eko Iraila

MORTEROS Y REVOCOS BIKAIN, S.A.

Aldebarrena Auzoa 18 – 48212 Mañaria (Bizkaia)

+34 946 202 496

www.bikain.com

info@bikain.com

